

# baleike



zer egingo dugu  
**umeeekin?**



## HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

### Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

### Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

### Koordinatzailea

Itziar Mora

### Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbietta

Itziar Garate

Izaskun Urbietta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Mikel Olasagasti

Joseba Alkorta

### Kolaboratzaileak

Juan Luis Romatet, Xebas Leiza,

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Unai Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola, Iker G. Cobeaga

### Azalaren argakia

Ines Aseginolaza

### Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

### Hizkuntza zuzenketa

Imanol Azkue

### Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

### Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

### Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

**Baleikek** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## aurkibidea

librean .....	4
ze berri .....	6
ingurumena	
<b>garbigunea</b> .....	9
<b>erosketa poltsa</b> .....	10
erreportajea	
<b>hautzaindegiak</b> .....	13
euskara	
<b>aisa programa</b> .....	18
gure zumai zarra	
<b>baxakarte</b> .....	21
kirola	
<b>golfa karakasén</b> .....	26
zine forum .....	28
agenda .....	30



## golfa ardien artean

Gezurra badirudi ere, golfearn aritu daiteke Zumaian.

BALEIKERen bulego ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiraletan 12etatik 13etara eta ostegunetan 18etatik 19etara



# kutxa

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA) diruz lagundutakoa



## Zumaiako Udala

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:

## Umezain burukuadratua

Telebista bere haurrak "zaintzeko" erabiltzen edo erabili izan ez duenak jaurti beza lehen harria!

Goizeko eskolara joan arteko tartetxoa betetzeko edo afaldu aurrekoak eta hurrengo egunerako lanak aurreratzeko hogei minutuak irabazteko, egun euritsuak leuntzeko, jatorduak bukatzeko sarritan erabiltzen ditugun txantajearen sari izateko, eta, oso garrantzitsua, asteburuetakoa siesta saiakerak bermatzeko.

Aipatu ditudan arrazoi edo aitzakia guzti hauek arrotzak badituzue, ba, zorionak! Gainontzekoentzat dira lerro hauek, eta telebistaren inguruko bi aipamentxo egiteko: bat, bukatu zen "Maite Kuttuna"!!!!, batzuen negarra, bestean poza! Nola liteke gaur egun, gure telebistan horrelako programa bat eskaintzea!? Duela hogeitun urte telebista



españollean lehen aldiz botatzen zituzten teleprogramen berdin-berdina, bere mezu

fantastiko

guztie-

kin: matxista, arrazista, klasista eta "ista" guztiak! Eta okerrena, "ñoñoa".

Izugarritzko eragina izan du gure umeengan, ordutegietan, eta gure etxeko kasuan, nire alaba baten orrazkeran ere! Badakizue ze lotsa ematen duen ileapaindegira umea eraman eta Maite Kuttunaren orrazkera eskatzeak?

Tira, ba, bukatu dela, eta hala, lasaiago aparkatzen ditugu umeak telebista aurrean..., baina, ez! Eta hemen noa bigarrenera: Gabonak hurbiltzen ari direla, eta guk jakin

nahi ez! Barbie, Baby Born, Bratz eta berriz Barbie! Zenbat konbinazio, bariazio eta permutazio egin daitezke gai berdinaren inguruan! Delako Barbie printzesa eta asma daitezkeen akzesorio guztiak, bai panpinarentzat, baita bere jabe zorionsuarentzat ere. Eta delako ume jaioberrria, txiza, kaka eta gainontzeko trebezia guztiak egin ditzakeena, bere osagarri guztiakin. Hori bai, guztietan ohartxo txiki irakurtezin bat, 30 eurotik gora balio dutela gogorazten.

Gauzak horrela, zer egin? Telebista itzali eta umeei "kalitateko denbora" gehiago eskaini, ala botiketean aipatzen dituzten "eragin sekundarioak" jasan?

Erantzunak, iritziak, zeuon esperientziak bidali sms baten bidez azpian doan zenbakira, hori bai, 20 minutuko tarte komertzialaren ondoren!



Miriam Romatet

dani



## PIRULETA IZATEARI BURUZ



xa 2

Kontzeptu berri bat, hiztegiari egindako kili-kili bihurria, semiotikaren sokasaltoa edo polisemien ludoteka. Ez da askotan gertatzen, norbaitek zeure hizkuntzan zerbait esan eta ez ulertzea. Badirudi gure hizkuntza ezagutzen dugula ("Mihiluze"-n agertzen diren *rara avis*

xelebre horiek kenduta), baina tarteka-tarteka ttak!, ezusteko hitzak eta esanahiak ikasten ditugu. Antzeko zerbait gertatu zitzaidan aurrekoan.

Elgetara joateko plana egin genuen. Bertan, "Debajazz" ekimenaren baitan *Ortophonk* eta *Wagoon Cookin* taldeen kontzertua izan genuen. Stop. Ba al dakizue non dagoen Elgeta? Elurra egiten duenean ETBk zuzeneko konexioak egiten dituen leku horretantxe dago Elgeta (beno, ETBk zuzeneko konexioak edonondik egiten ditu, eta hori ez da albistearen interes graduarekin zuzenki proportzionala; gogoratu Unai Basurko eta bere elkanokeria frustratuei zer estaldura eman dien). Beno, Elgeta oso-oso urruti eta mendian galduta dago. Nik, ordea, lagun finak aukeratzen ditut bidaide eta bilatu nuen punta hartaraino eramango ninduen lagun bat. Gidari fina, inondik inora,

errebuelta haiek guztiak zuzen hartzeko abilitadea erakutsi baitzidan.

Iritsi ginen Elgetara, Espaloia kafe antzokira. Ederra aretoa, honelako herri txiki baterako harrigarri xamarra izanagatik, inbidia emateko modukoa. Hemen egin nuen Oxforden jartzeko moduko kafe antzoki baten apologia. Ez dakit zertan diren gauzak, baina ideia Oikiara eramatea ere ez da txarra. Espaloian, *funky* kontzertua izan zen *Ortophonk* taldeak eman zuena. Jauzika eta parrez dantza-mantzan jardun genuen guztiok. Eta hemen iritsi zen kontzeptu berria. Giza egoera edo nortasun bat azaltzeko modu abangoardista: piruleta izatearena, alegia. Lagunak neuri esan ez zidan, ba, piruleta bat nintzela!!!! Zer den hori? Ba, beti-happy, saltarintxu, eta noproblemdar izatea. Irribarrez eta dantzan jardutea gustatzen zaigunok garena. Nolabait, antzokikoan genuena 'piruleta egoera' zen. Ez zitzaidan gaizki iruditu, eta nitaz gain, beste zenbait jendilaje deskribatzeko ere balioko lukeela iruditu zitzaidan. Adibidez, ezertaz konturatu gabe bizi den jendearentzat, gizarteko trikimailuak ikusten ez dituen piruletero ugari baitago, eta piruletak saltzeko amorratzen dagoen politikari ugari, gu gozo-gozo somniferatu nahian. Ipurdia mugitu gabe, gauzak berez egiten direla uste duten horiek ere piruleta xamarrek dira, eta ezer eraikitzeko asmorik gabe protesta egitea ofiziotzat duten zenbait jende ere bai.

Piruleta egoerak bizitzen jakitea ez dela txarra, baina piruleta izatea... ez dakit, ba.

**ilarzi**  
Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

**Itzurun**  
ATEAK

- Material guztietako leihoak:  
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua  
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

**Emilio Perez**  
Elektronikari, telebista eta instalazio  
elektrikoen salmentak eta konponketak

---

**ADI**

BASADI 2 B  
20750 ZUMAIA  
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157  
E-mail: adiele@euzkalnet.net

# Zer gertatuko da Oxfordekin?

Orain dela hilabete batzuk BALEIKEN bertan ere heldu genion gaiari (146. zenb.). Orain dela hilabete pare bat, ordea, udalak aurten proiektua onartuko duela jakin zuten herriko hainbat taldek eta, gaiarekin kezkatuta, elkartzen hasi dira.

Lehenengo bilera orain dela bi hilabete edo egin zuten, eta bertan hainbat talde bildu ziren Alondegiaeren proiektuaren inguruko nahiak, kezkak, proposamenak, iritziak eta abar trukatzeke. Taldeek beren kezkak udalera eramatea erabaki zuten eta, udalak zenbait plano eman zizkien, oinarriaren erabakita zegoenaren gainean proposamenak egin zituzten.

Taldeek adierazi digutenez, Udalak eskuragarri jarri dituen planoak aztertu ondoren, erronka handia dela uste dute; izan ere, haien ustez, Alondegiaek kultur erreferentia izan behar du, eta, horrenbestez, halako ekimen garrantzitsu bati ekin aurretik, hausnarketa sakonagoa behar dela pentsatzen dute: Zumaian dauden kultur beharren txostena egitea, adibidez.

Horrela bada, joan den hilaren bukaeran egindako bileran, beren eskaerak idatzi eta udalera eramatea erabaki zuten.

Honako eskaera hauek egin dizkiote udalari:

- Kultur plangintza orokor baten beharra du herriak, bai eta kultur jardunetarako erabiltzen diren eraikinen funtzioa eta erabilera zein izango diren zehaztea ere.
- Alondegiaeri dagokionez, zehazki: etorkizunean egon daitezkeen beharrak aurreikusiz, eta epe motz-ertainean sor daitezkeen proiektuak bateragarriak izan daitezen, Alondegiaeren funtzioak eta erabilerak zehaztea bere itxura zehaztu aurretik.



- Alondegiaeren eta Ubillos jauregia edo beste edozein eraikinen izaera aurrez definitzea, herrian benetan dauden beharretara egokitzuz. Adibidez, musikariak Ubillosen edo Alondegian egon behar duten, antzerki ikastaroak Forondan edo Alondegian egin behar diren, etab.
- Herritarrek eta herriko kultur taldeak gehiago kontuan hartzea. Izan ere, deialdi irekiaz gain egin litezke deialdi zehatzak ere. Esate baterako, taldeekin harremanak estutzea eta ugartzea.

Goiko eskaerak sinatu zituzten herriko taldeek lanerako prest daudela adierazi dute.

*Tapaia*  
Taberna

Enbidea Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

*Arkupe*  
Okindegia  
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

*"Muagi"*

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ILEAPAINDEGIA  
TRUITZ

San Telmo, 12  
Tel. 943 860760

Arantza Aramendi  
**EGUZKI**  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

**TOMAS**  
**TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitarkeoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

# Perretxiko aste arrakastatsua

Pasa berri diren perretxiko jardunaldien balorazioa oso positiboa izan omen da. Aurreko urteekin alderatuta, aldaketa batzuk egitea pentsatu zuten Natur Taldekoek eta asmatu dutelakoan gaude, jendearen harrera eta iritziak kontutan hartzen baditugu.



Pasa berri diren perretxiko jardunaldien balorazioa oso positiboa izan omen da. Aurreko urteekin alderatuta, aldaketa batzuk egitea pentsatu zuten Natur Taldekoek eta asmatu dutelakoan gaude, jendearen harrera eta iritziak kontutan hartzen baditugu.

Ostiralerako hitzaldia antolatuta zuten Inda Mendi elkartearen Aranzadiko kide den Pedro Arrillagaren eskutik, baina hura ezin etorri izanenez, Natur Taldeko kide den Inaxio Manterolak eman zuen Pedrok eman beharreko hitzaldia eta oso ondo atera zen. 20 bat lagun elkartu ziren Inda Mendin, eta, hitzaldiaz gain, Inda Mendi elkartearen kideek prestatutako perretxiko dastaketa ere egin zuten bertan.

Aipatu beharra dago Inda Mendi elkartearen erakusketa antolatzen jarduten duten guztientzat afora prestatzen zuela; Natur Taldekoek adierazi digutenez, eskerrak eman nahi dizkiote Ramon Chamorro eta bere kideei urtero hartzen duten lanagatik.

Larunbat goizean perretxikoak biltzera irten ziren, baina aurtengoan autorik hartu gabe; Zumaian bertan bildutako perretxikoekin erakusketa osatzea zen haien asmoa. Azken egunetako hego haizearen eraginez bildutako perretxiko kopurua ez zen oso handia izan eta aurreko astean Zarauzko Arkamurka Natur Taldeak beraien erakusketarako

bildutako perretxikoak ere erabili zituzten, horrela 100 espezie baino gehiagoko erakusketa osatuz. Zarauzko taldeari ere eskerrak eman nahi dizkiote Natur Taldekoek.

Igandeko erakusketak bazuen beste aldaketa garrantzitsu bat ere: kokagunea. Frontoitik Oxforrera aldatu ziren, eta Natur Taldekoak gustura daude aldaketarekin: espazioa txikiagoa zen eta hartutako perretxiko kopurua ere egokia izan da aurreko urtearekin zuzenean espaziorako, bildutako perretxiko guztiak jarri baitzituzten erakusketan; zaborretara joan zirenak ere aurreko urteetan baino askoz gutxiago izan dira. Gainera, perretxiko esanguratsuenak ikus zitezkeen: ondoak, kuletoak, gibelurdinak eta jendeak normalean ezagutzen dituenak. Ez omen zuten zenbait bertatik pasa zen jende kopurua, baina jende pila bat hurbildu zela esan daiteke.

Oxforreko areto txikian hariztiei buruzko erakusketa jarri zuten: zuhaitz desberdinekin, hegaztien hotsekin, umeez marrazteko gune batekin; nahiko polemika sortu zuen ehiztarien txoko bat ere jarri zuten, eta hariztia usaindu ere egin zitezkeen.

Natur Taldekoek esan digutenez, orokorrean oso gustura daude jardunaldiek izan duten harrerarekin, eta, hala, datorren urtean parte hartze handiagoa izatea nahiko lukeela aitortu digute; izan ere, zaletasun handia dugu zumaierrok!



**MENDI - ONDO C.B.**  
ELEKTRIZITATEA  
Urola Plaza, 21  
Tel. 943860074 - 943861569



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

**ZOZKETA!!**

# Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, Txapartegik emandako tarta eder bat zozketatuko dugu. On egin!

Zumaia eta inguruak ez ditugu behar bezala ezagutzen, altxor txikien jabe gara eta askotan ez gara konturatu ere egiten... Txoko honek lagunduko digu gure txokoak ezagutzen.



**Aurreko zenbakiko erantzuna:  
Amezmendi**

**Irabazlea: Arantxa Alkorta Oliben**

**Parte hartu eta  
zorte on!!**

## **GALDERA:**

Gaurkoan Zumaiako kaskotik irten eta Beduara joango gara, terrenoz Zestoakoa izan baina Zumaiaetik gertuago dagoen auzora. Garai batean, merkantzien garraioa batez ere itsasoz egiten zenean, oso leku garrantzitsua zen, itsasontziek Urola ibaian gora egin eta Beduako lonjan deskargatzen zituztelako salgaiak. Gero, ordea, batez ere Zumaian Zubiaundia egin zutenean, pixkanaka lehengo garrantzia galdu egin zuen, itsasontziak ezin zirelako igo ibaian gora. Ontziolak ere egon ziren Beduan, horietako bat ia XX. mendearen amaiera arte lan egin zuena. Baina argazkia ez da ez lonjarena, ezta ontziolarena ere.

Joan den mendean, Zumaian izugarritzko garrantzia izan zuen porlanak eta inguruan (Arroan, Narrondon...) zeuden fabriketako produkzioa Zumaiako portutik ateratzen zen, itsasoz eta trenez. Fabrika horietako bat Beduan zegoen, baina besteekin alderatuta bazeukan berezitasun bat: kare hidraulikoa, "hiraulika" egiten zuen. Beduan, bidearen bazterrean, lan haien aztarna ugari daude. Hiraulika egiteko harria, ordea, ez zuten Beduan bertan ateratzen, inguruko harrobi batetik baizik, eta airean, kable bidez, tinetan eraman fabrikara.

**Hona hemen gaurko galdera: nongo edo zein harrobitatik ateratzen zuten Beduako hiraulika fabrikarako harria?**

Arrasto batzuk: Zestoako auzoa da eta Urtain baserria harrobiaren ondoan-ondoan dago.

Erantzunak [elkartea@baleike.com](mailto:elkartea@baleike.com)era bidal, Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behea) edo 943 86 15 45 telefonoan eman azaroaren 27a baino lehen. Erantzunekin batera izen-abizenak eta telefono zenbakia adierazi.

Karmengo Ama, 14  
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: [bakun@euskalnet.net](mailto:bakun@euskalnet.net)

finés  
french  
euskara  
englantzi  
español  
catalonian  
suomi  
basc  
català  
finnois  
français  
anglés  
catalán  
française  
castellano  
finnish  
inglés  
baski  
catalán

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L



**ad** **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

# Garbigunearen erabiltzaile tasa gorantz doa

*Nahiz eta denbora gutxi eraman martxan zerbitzu honek, arduradunak gustura daude jaso duten harrerarekin. Hala ere, oraindik jende gehiagok erabiltzea espero dute, Urola Kosta eskualdeko jende ugari oraindik ez baitu ezagutzen zerbitzua.*

MIKEL OLASAGASTI

2005eko apirilean ireki zen Joxe Mari Korta industrialdean Urola Kosta eskualdeko bigarren Garbigunea. Arduradunen arabera, urte erdi honetan jaso duten erantzuna oso ona izan da, erabiltzaileen zein jasotako hondakin eta tresnerien igoera tasa igo egin baita. Hala ere, Urola Kostako Udal Elkarteko kide den Arantxa Alberdiren arabera, "Gero eta jende gehiagok erabiltzen du, baina gehiagok erabiltzea gustatuko litzaiguke". Batez beste, eguneko 20-25 sarrera izaten ditu Garbiguneak, eta materialen aldetik gehien uzten dutena obretako hondakinak dira.

Garbigune honen funtzionamenduaren ardura Urola Kostako Mankomunitatearen esku dago, eta udal elkarte horren helburua da eskualdea osatzen duten bost herriei (Aia, Getaria, Orrio, Zarautz eta Zumaia) zerbitzua ematea. Garbigune hau, azken finean, biltegi bat da: Urola Kostako herri-tarrek hondakinak bertara eramaten dituzte eta gaika sailkatuta botatzeko aukera edo zerbitzua eskaintzen die ezer ordaindu gabe. Zaborra gaika botatzeko, edukiontzi bereziak daude eta hondakin bakoitza bere tokian laga edo bota behar da.

Zerbitzu honen oinarritzko helburua eskualdean sortzen diren hondakinak berreskuratzea da, eta neurri handi batean, birziklatzea ere bai. Beste helburu batzuk ere baditu, ordea: jendeak ez botatzea hondakinak edozein bazterretan eta Urtetako zabortegian bilzen den zabor kantitatea murriztea.

Urola Kostako Mankomunitatearen Ingu-rugiro Sailak eskuartearen darabiltzan zifren arabera, aurrean nabarmen igo da erabiltzaileen kopurua. Urte honetako urtariletik irailera bitartean, Beduako industrialdeko Garbigunean 120 tona inguru hondakin jaso dituzte: 100

tona egur, 50 tona zabor, 20 tona baino gehiago kartoi eta 10na mila kilo lorezaintza eta kimatze hondakin. Horiei guztiei, gainera, gune marroi eta griseko hondakinak gehitu behar zaizkie, hau da, hondakin arriskutsuak eta metalezko txatarra, eta oraindik zenbatu gabe daude.

Mankomunitatetik gogorarazten dute zerbitzu hau inguruko herrietako auzotar, merkatarri eta gremio berriei eskainia dagoela. Industria handiek ere utz ditzakete

hondakinak, baina baldintza batekin: hondakina ez izatea beraiek sortua. Garbigunean honelako hondakinak bota daitezke: egurra, obra hondakinak, beira, ontziak, autoetako eta etxeetako olioak, kartoiak eta papera, etxeko tresna elektrikoak, kimatze eta inausketa hondakinak, pilak, lurra, koltxoiak, errautsa, pinturak, fluoreszenteak... Ia denetik bota daitekeen arren, enpresetako hondakinak, uralita eta pneumatikoak ez dituzte onartzen. Pisuari dagokionez, gehienez 2.500 kg baino txikiagoak diren kamioiek dute deskargatzeko aukera, eta erabiltzaileek asteko 750 kg eta 2 metro kubikoko bolumena bota dezakete.


Garbigunearen ordutegiari dagokionez, zabalik egoten da astelehenetik ostiralera, 08:30etik 13.30era goizez eta 16:30etik 18:30era arratsaldean. Larunbatetan, berriz, 10:00etatik 12:30era. Igande eta jaiegunetan itxita egoten da.

## Informazio kanpaina

Garbiguneko arduradunek hurrengo egunotan informazio kanpaina bat has-teko asmoa dute, zerbitzua eskualdeko biztanleei eta batez ere zumaiarrei eza-gutarazteko asmoz.

Horregatik, hurrengo egunotan, Zumaiako etxeetan liburuxka batzuk banatuko dituzte, Garbigunearen funtzionamenduaren arauak argitzeko.

"Zerbitzu honen helburua ere bada jendeak hondakinak edozein bazterretan ez botatzea eta Urtetako zabor kantitatea murriztea"





# Berrerabilpena gure eskuetan dago

*Turismo bulegora joan gara hurrengo hilabeteetarako berrikuntzak jakin nahian eta jada abian dagoen proiektu baten berri eman digute Esti Irureta eta Jone Esnalek. Ekimen horri esker, herritarren eskuetan erosketetako poltsa gorriak ikusteko esperantza dute. Ondoren azalduko dugun bezala, estetika kontua baino gehiago izango da.*

## IURE ALTZIBAR ETA MAITANE AGIRRE

Duela egun batzuk gure webgunean azaldu genuen bezala, Zumaiaiko Udalak eta Urola Kostako Udal Elkarteak "Nik zuri, zuk niri, poltsa berrerabili" kanpaina hasiko du hila-bete honetan. Esti Irureta Zumaiaiko turismo eta merkataritza teknikariak azaldu digunez, "Zumaia izango da Gipuzkoan horrelako kanpaina garatuko duen lehen herria, eta ondo ateraz gero, gainerako herrietara zabalduko da".

Tokiko Agenda 21en barruan sartzen den asmo honen helburua eguneroko erosketetako poltsen kopurua murriztea da. Horretarako, poltsa bakarraren berrerabilpena bultzatu nahi dute.

Poltsa hau tela antzeko material batez egindakoa izango da, eta horri esker, tolestu ahal izango da eta neurri txikikoa geratuko da. Gainera, garbigailuan sartzeko modukoa izango da. Koloreari dagokionez, Zumaian ohikoa den bezala, gorria izango da. Hasieran neurri bakarreko 10.000 poltsa ateratzeko asmoa dute, baina horrek sor ditzakeen arazoak kontuan hartuz, ez dute neurri ezberdinetakoak ateratzeko ideia baztertzen.

Estik adierazi digunez, "Kontua ez da eguneroko poltsarekin alde batera eta bestera ibiltzea, gaur egun ere ezer gabe joaten gara eta erosketak egitera". Horregatik, poltsa hauek ekimenari atxikitako herriko denda guztietan egongo dira, edozein unetan doan hartzeko. Salbuespenak

Poltsak ekimenari atxikitako herriko denda guztietan egongo dira edozein unetan doan hartzeko. Hauen salbuespena arrandegi eta harategiak izango dira.



arrandegi eta harategiak izango dira, bertako produktuekin kiratsa hartuko luketelako. Pixkanaka poltsak etxean pilatuko dira eta hori izango da poltsak dendaraz itzultzeko unea. Poltsak itzultzen dituztenei txartel batzuk emango dizkiete eta horiekin datorren urteko lehen hilabeteetan egingo den zozketan parte hartuko dute. Erosketa baleak zozkatuko dira.

Kanpaina honetan merkatariek badute zeresanik, eta hain zuzen, ekimen honen inguruko bilera bat egin zuten. Joan zirenek "Oso harrera ona egin zieten proposamenari. Gainera, beraiei esker lehendik pentsatuta zeuden hainbat gauza aldatu egin ziren, besteak beste, txartelen kontua. Hasieran pentsatzen genuen txartela gehien erosten zuenari ematea, baina horrek ez du zerikusirik jasangarritasunarekin, eta merkatariek proposatu zuten gutxi erosi arren itzultzen zituztenei eman behar zitzaizkiela txartelak". Eta hala egingo da.

Estik adierazi digunez, "Merkatariak ez du inolako irabazi edo kosturik izango ekimen honekin. Egin behar duten gauza bakarra da poltsak ikusi ahal izateko erakustoki txiki bat jartzzea". Poltsak bukatzen bazaizkie edo zalantzarik badute, aholkularitza telefonora (902 322 010) deitu behar dute.

Estik aipatu nahi izan digu Dia eta Eroskiko ordezkariak ere izan zirela bileran eta poltsa berriak beraien lokaletan jartzeko prest agertu zirela. Hasieran, denda txikietan jarriko dira poltsak, eta hamabost egunera Dia eta Eroskin.

Kanpaina hau aurrera eramateko ardura Mandoia enpresarena da eta bera arduratuko da hilabete honetan ekimena aurkezteaz. Horretarako, dendaz denda ibiliko dira erakusmahaiak banatu eta azalpenak ematen.

Bestalde, Estik adierazi digunez, "umeeek gurasoengan eragina izan dezaketela ohartuta" ikastetxeetan ere egingo dituzte erakusketak. Asmoa Zumaiako Herri Eskolatik, Maria eta Jose ikastetxetik eta Oikiako Eskolatik pasatzea da.

Amaitzeko, horrelakoetan esan ohi dena adierazi digu Estik: "Ikusiko dugu zer gertatzen den. Hemendik hiru hilabetera dendetan poltsarik ez egotea porrota izango litzateke. Gutxi batzuk faltako balira, berriz, seinale ona litzateke".

Turismo Bulegoan ekimen honekin buru-belarri badabiltza ere, ez gara joan webgune berria sortzeko asmoa dutela jakin gabe. Ikusirik Udalaren webgunetik turismora iristea zaila dela gune propioa sortzea erabaki dute eta [www.zumaiaturismoa.com](http://www.zumaiaturismoa.com) izango da helbidea, ziurrenik.

Ea ba bi proiektu hauekin zortea duten eta Estiren hitzak errepikatuz "Ikusiko dugu"!

"Merkatariak oso harrera ona egin zieten proposamenari. Gainera, beraien esker lehendik pentsatuta zeuden hainbat gauza aldatu ziren"



**Auto-konponketak**  
**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



baleike irakurleen txokoa

**Txoko berri honetan, zozketa bidez sariak emango ditugu hilero.**

**Baina, erne! DENOK PARTE HAR DEZAKEZUE!!**

**Idatzi elkarte**a**@baleike.com helbidera, zuen izen-abizenak eta telefonoa adieraziz. Bestela, deitu telefonoz (943 86 15 45) edo utzi zuen mezua BALEIKERen buzoian.**

**Mezuak bidaltzeko azken eguna:  
azaroaren 17a.**

## Literatur emanaldietarako sarrerak!

Azaroaren 24an TXIKIRA BETI HORDAGO! (Bertol Arrieta).

Emaitzak web orrian jarriko ditugu, dagokion egunaren aurretik.

# Zorte on!!

BALEIKEk eta TXINPA RTAk antolatutako literatur emanaldiak.



**Kultur Errota egitasmoaren barruan...**

**Urola Kostako Kultur Zirkuitua:**

- Urriak 20, HAMAR MEZU ETA DEI BAT, Azkoitian
- Urriak 27, MUGALDEKOAK, Zestoa
- Azaroak 3, EZKATAK, Zumaian
- Azaroak 24, TXIKIRA BETI HORDAGO!, Zumaian



**TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694**

**ARozTEGIA**

**Urola 2000, s.l.**

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA  
OPIL-OKINDEGIA**



# Hurtzaindegiak: zergatik eraman haurrak horra?

*Garai batean, apenas eramaten ziren umeak hurtzaindegira. Amekin, aitona-amonekin, zaintzaileekin... geratzen ziren. Gainera, uste zen hori zela egokiena; etxeko eta familiaren giroa, alegia.*

*Gauzak aldatu egin dira, ordea. Ekonomia, bizi kalitatea, emakumearen sarrera lan munduan, estresa... hainbat faktore daude. Ez dago denborarik, eta, tamalez, umeekin egoteko gutxiago. Hori dela eta, hurtzaindegien beharra sekulakoa da eta Zumaian hori asko ikusten ari gara azken urteotan.*

## IZASKUN URBIETA

Zumaian jaiotza-tasa ikaragarri igo da, eta horrek haurtzaindegien beharra sendotu egin du.

Datuen arabera, 1998. urtetik hona biztanleria % 4 igo da: 8.305etik 8.656 biztanlera. 2004ko urtarrilean, adibidez, Zumaia 8.705 biztanle zituen. Adin multzoka, honela zeuden banatuta: 0tik 19 urtera bitartean, % 20,5; 20tik 64 urtetara, % 64,9; eta, azkenik, 65 urtetik gora % 14.

Zumaian 2 haurtzaindegi dauzkagu, bata pribatua eta bestea publikoa. Lehenengo pribatua sortu zen, Maria eta Jose ikastetxean. 2 urteko gela orain dela 15 urtetik dago zabalik; urtebetekoa, aldiz, orain dela 5 urtetik. Haurtzaindegi publikoa, berriz, 2005eko martxoan zabaldu zuten.

Bertako irakasleekin hitz egin dugu 2 eskolen funtzionamenduaz, azken batean, haurtzaindegien "boom" hau berria baita eta pertsona askok ez baitakite zer egiten den bertan.

Zumaian  
haurtzaindegiaren  
beharra zegoen,  
jaiotza tasa izugarri  
igo da eta. Ume  
asko kanpoan  
geratu dira, ordea.

### 1) Beharrezkoa iruditzen zaizue haurtzaindegi?

**Haurtzaindegi publikoa:** Zumaian haurtzaindegi publiko baten beharra zegoen. Jaiotza tasa asko igo da eta horrek beste haurtzaindegi baten beharra eskatzen zuen. Arazoa da txikiak egin dutela eta haur asko kanpoan, tokirik gabe, gelditu direla, batez ere 0-1eko gelan.

Gaur egun plaza guztiak beterik ditugu, hau da, 0-1eko gelan 8 ume ditugu eta 1-2eko gelan 13, nahiz eta orain 2 gutxiago ditugun.

**Haurtzaindegi pribatua:** gure ustez ondo dago umeak haurtzaindegira ekartzea, umeen arteko erlazioak asko hazten baitira. Hori bai: dena bere tamainan, hau da, egokiena 4 bat ordu ekartzea da, baina batzuek ezin dute, eta, beraz, hori oso zaila gertatzen da. Hala ere, gehienez 8 ordu egon daitezke.

**Haurtzaindegi publikoa:** gure ustez ere komenigarria da haurrak ekartzea, baina tamainan. Uste baino gehiago ikasten dute hemen.



CROISSANTERIA

pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

**Rosi**  
garbiketak

- \* Etxeak eta dendak
- \* Enpresa eta auzo lanak
- \* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670

**Galdona**

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330



## 2) Zer eskaintzen duzue?

**H.Pu:** gure haurtzaindegia goizeko 07:30etik arratsaldeko 18:30era dago zabalik. Lehendabizi egokitzapen prozesu bat egiten dugu umeekin. Hau da, lehenengo 2-3 egunetan haurrak erreferentziarako pertsona batekin egoten dira (gurasoak, aitona-amonak...). Ondoren, pertsona hori gabe egoten dira ordu eta erdi. Pixkanaka, bazkaltzen geratzen dira, siesta egiten... Dena apurka-apurka egiten dugu. Bazkaria beraiek ekartzen dute etxetik eta guk lagundu egiten diegu jaten. Bestalde, hezkuntza proiektu baten arabera moldatzen ditugu jarduerak. Horrela, abestiak, ipuinak, koloreak, animaliak... erakusten dizkiegu. Baita autonomia izaten ere, hau da, bazkaltzen, higieena (eskuak garbitzen, adibidez)...

**H.Pri:** gurea goizeko 08:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte dago irekita. Urte bateko 2 gela ditugu 26 umerekin, eta 2 urteko 3 gela 45ekin, nahiz eta guztiak ez hasi. Horietatik guztietatik, gutxi gorabehera 12 ume geratzen dira bazkaltzen. Janaria ez dute beraiek ekartzen, kanpoko enpresa batek ekartzen du eskolara. Hemengo irakasleok hezkuntza egitasmo bati jarraitzen diogu.

“Orain eskolara  
etortzen direnek  
adaptazio ona  
izaten dute gero”

Horrela, egunero gauza ezberdinak lantzen ditugu, adibidez: zentzumena, hizkuntza, motrizitate fina, motrizitate orokorra eta kontzeptuak. Hori guztia jolasen bidez ikasten dute. Astean 2 aldiz bideo gelara joaten gara, eta astean behin gimnasioa.

Kurtso amaieran ume bakoitzak karpeta batean jasotzen ditu urtean zehar egindako marrazki, eskulan eta abarrak.

## 3) Haurtzaindegian ibilitako umeez badute alderik ibili ez direnekiko?

**H.Pu:** gaur egun ume bat izateko tendentzia dago, eta, hortaz, haurtzaindegian gehiago erlaxionatzen dira. Arauak errespetatzen, balioak ezagutzen... ikasten dute. Gainera, 3 urterekin eskolara hasterako ohituta egoten

dira eta errazago joaten dira ikastolara. Diferentzia, beraz, badago.

**H.Pri:** gaur egun, 2 urteko umeen % 80 baino gehiago eskolatu daude; beraz, ez da desberdintasun askorik nabaritzen. Egia da, hala ere, orain eskolara etortzen direnek adaptazio ona izaten dutela gero. Gehiago edo azkarrago ikasten dutela? Beharbada bai, baina kasuak eta kasuak daude.

# IRAKURRI, MATTE!

"Maitasunagatik  
egiten den oro  
ongiaz eta  
gaizkiaz haraindi  
egiten da"

(F. Nietzsche)



*Alberdi*  
*Gizonezkoen moda*



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155

GANBARA




Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

**ITSASKI**  
SUPERMERCATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058



IRAKURRI, MATTE izenburua jarri zion bere ipuin-bildumetako bati Julene Azpeitiak, eta halaxe aurkeztu nahi dugu guk ere hiruhilabetekari hau.

Julene Azpeitiaren kasuan, ipuingile izatearen helburua umeak irakurtzera zaletzea eta ama hizkuntzaz gozatzea zen. Antzeko asmoa dakarkigu guk ere orri hauetara: haurrak nahiz helduak zaletu nahi ditugu gure ama hizkuntzan irakurri eta gozatzen. Baina, haratago ere joan nahiko genuke, gozamen hori herritarren sorkuntza-lanak papereratuta lortzea baita gure erronka.

Aldizkariaren orrietan barrena, bada, zuen lanak argitaratu nahi ditugu, mota guztietako sorkuntza-lanak. Lekua izango du, horrenbestez, bere idatziak (haur, gazte nahiz helduentzako ipuinak, poemak, bertsoak, iritzi-artikuluak, literatur gomendioak) nahiz marrazkiak, irudiak, argazkiak eta abar argitaratu nahi dituen edonork. Ongi etorriak izango dira, halaber, zuen gomendioak. Horretarako, gurekin harremanetan jartzea besterik ez duzue; hauxe da gure helbide elektronikoa: irakurri\_matte@eus-kalerria.org.

Gure proiektuan parte hartuko duzelakoan, lehen zenbakira arte agurtzen zaituztegu.

Laster arte,

IRAKURRI, MATTE

**ekin**  
Elektrikoa, S.L.

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**OSA**  
BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12      Tel. 943 861412

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 943862309



# Nazioarteko Euskara

**Maitasuna, arazo ekonomikoak, bizitza berri bat, familia... istorio ezberdin eta urrunak batzen ditu, Zumaian bertan, Aisa programak. Bere helburua etorkinei, bai etorri berriei, baita hemen denbora daramatenei ere, euskararekin lehen harreman bat ahalbidetzea da.**

## ITZIAR GARATE

AEK-k Zumaiak duen egoitzara joaten dira Eulises Zapata eta Flor Elena Castañeda senar-emazteak ahal duten guztietan. Kolonbiarrak dira eta Euskal Herrian sei urte daramatzaten arren, aurten hasi dira euskaraz ikasten. "Dirua izan zen etortze-

ko arrazoi nagusia", dio Eulisesek, urrunera zuzentzen diren begiekin. Baina euskara ikasten hasteko arrazoa zein izan den galdetzean begiak bat-batean hurbildu dira errealitatera. Florrek hartzen du oraingoan hitza: "Gure semearengatik egiten dugu, baina baita gurengatik ere, neurri batean. Oraindik ere kostatu egiten zaio euskaraz jardutea. Eskolako zailtasunak gainditzen



- \* Eguneko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio beobide 3, tfno. 943 019 869



laguntzeko modu bat da guk ere euskaraz ikastea. Etxeko lanak guztion artean egiten baditugu, aurrera ere guztion artean egin dugu. Gainera, euskaraz egitea gu bertakogago egiteko baliagarria izan daiteke, gu hemengoago sentitzeko edo".

Zumaiako Udalaren babespean, Aisa programa urriaren bederatzian hasi eta abenduaren erdialdean amaituko da. Bitartean, munduko leku ezberdin eta urrutetatik iritsitako etorkin talde batek hirurogei ordu emango ditu euskara ikasten. "Taldea polita osatzen dute. Gogoz etortzen dira eta hori nabaritzen da. Batzuek, lana edo etxeko zereginak direla eta, ezin izaten dute eskola guztietara etorri, baina datozeanean fin aritzen dira lanean", dio Thelia Illaramendik, AEK-ko irakasleak.

Programa honen bitartez, Euskal Herriko gizarteak, ohiturak eta bizimodua ezagutu eta euskara ikasteko lehen urratsak egin ditzakete. Neurri batean, eurek dituzten ohi-turak eta hemengoak alderatzeko aukera dutela gaineratzen dute ikasleek. Hori lortzeko asmoz erabiltzen duten materiala eguneroko bizitzako jarduerak eta egoerekin lotuta dagoela azaltzen du irakasleak. Ulermena eta hiztegia dira horretarako gehien lan-

tzen diren atalak, "eguneroko bizitzarekin oso lotua dagoen materiala da. Zabalak diren gaietatik hasi eta gai konkretuagotara jotzen da: nongotarra naiz, non nago...". Betiere, dauden gabeziak eta mugak hartzen ditugu kontuan, eta horren arabera, poliki, baina aurrera egiten dugu", azaltzen du Thelia. Horrela, kaleko hizkuntza eta egiturak ikasten saiatzen dira, euskararen alde praktikoa horri erreparatu eta, bitartean, hizkuntza bereganatu; "erabiltzen dituzten liburuak zazpi hizkuntzatan agertzen dira, ulermena errazteko". Arrazoiak argia da: gehienak Hego Amerikatik datozen etorkinak dira, baina badira beste lurralde batzuetatik etorritakoak ere.

### Euskaldun berriak

"Hasiera beti da zaila. Gainera, kanpotik gatozenok ez ditugu besteek dituzten aukera berdinak. Askok galdetzen digute zertara gatozen hona, beste askok lana kentzera gatzozela diote.

Guk, ordea, besteek nahi ez dituzten lanak egiteko aukera besterik ez daukagu. Lana eta baldintzak ezberdinak dira", dio Eulisesek. Ikasketa zehatzik ez duen arren etengabe formakuntzan jardun duela gaineratzen du.

"Euskara ikastea beste pauso bat da. Lehen esan bezala, integrazteko balio badigu, hizkuntza ere ikasten saiatuko gara". Joan den urtera arte Zarautzen bizi izan ziren. Bertan egin zituzten lagunak, eta han dago euren lagun talde handiena. Ezberdintasuna nabaria dela diote. "Zarautz herri handiagoa da, jendea irekiagoa da. Zumaian, oraindik ere, arraroa egiten zaie kanpotarrak ikustea.

"Gure bizilagunak ere, oraindik ez gaituzte berdinak bezala tratatzen", dio Florrek.

Euskara ikastea, "mesfidantza kentzeko modua izan daiteke. Euskal Herriko jendea serioa da. Badirudi, askotan, haserre direla. Beharbada, eurek bezala hitz egiten badugu, gu ere bertakogoa bezala hartuko gaituzte. Ikastea bada bidea, hori ere egingo dugu. Gu ez gara lapurtzera etorri, bizimodu hobea gogatu baten bila, baizik. Besterik ez".

"Gure bizilagunak ere oraindik ez gaituzte berdinak bezala tratatzen. Euskara ikastea mesfidantza kentzeko modua izan daiteke"

garratzen konpainia bereziki garratzen  
garratzen: 15m-4m.

**GARRAIOAK**  
Asensio Artetxe Iturbe

Tel: 943 557 189 / 655 706 557  
Izantzen, 5-2A (Zumaiako) - Aitzpiloa, 16-E (Mendiako)

**gofi**  
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

**TALAI**

INMOBILIARIA 943 143361  
BIDAIAK 943 143323  
Ortega y gasset, 1



### Istorio ezberdinak

Ana Mariaren kasua ezberdina da. Taldeko zaharrena da, baina horrek ez du atzera botatzen euskara ikasten hasteko orduan. Bere arrazoia argia da (kasu honetan arrazoi bikoitza: Itsaso eta Garbiñe): "Nire ilobei etxeko lanak egiten lagundu nahi diet. Oraindik bost eta sei urte dituzte, baina...". Ana Mari Acostaren alaba orain hamabost urte etorri zen Euskal Herrira. "Bera laguntzera etorri nintzen ni orain zortzi urte. Bi iloba izan ditut eta eurak dira euskara ikasteko dudak arrazoi nagusia. Ikastolan dabilta eta hemengoak dira." Azken esaldiak ahoan zapore gazi-gozoa uzten diola dirudi, eta Zapata senar emazteekin ados dago: "Euskara ikastea nirea ez den herrialde batera integratzeko baliagarria bada, ez dago gaizki hori ikastea".

Ana Marik ere ez dio ikasteari utzi: hasieran erizaintzako ikastaroa, geroago informatika pixka bat eta azkenik, euskara. "Nire adina izan arren (berrogeita hamar urte ditut), euskara ikasten hasi naiz. Gidatzeko baimenarekin ere saiatzen ari naiz, baina hori zailagoa da", dio irribarrea ezpainetatik kendu ezinik. "Kuban ezin izan nuen ikasketarik egin. Zortzi senide ditut eta ni naiz zaharrena, besteak zaintzea izan zen nire eginbehar bakarra. Nire herritik bizimodu hobea baten bila etorri naiz eta azkenean ez naiz ez hangoa, ezta hemengoa ere", gaineratu du. "Euskal Herria Kuban dut gogoan, eta Kuban nagoenean Euskal Herria. Gustuko dut oporretara joan eta familia guztia etxean izatea, alaitasun hori; baina etxera iritsi eta bakardadean lasai egotea... horren falta ere sumatzen dut. Azkenean gauza arraroa da, ez naiz hangoa ezta hemengoa ere. "Nongoa zara, Ana Mari?". galdetzen diot askotan nire buruari. Erantzunik ez dut, oraingoz. Hori bai, goizean jartzen dudak musika Kubakoa da", dio alai.

Zarautzen bizi izan da orain gutxi arte, nahiz eta lehenago Itziarren eta Narrondon bizi izan. Euskal Herrira etorri eta ezkondu ere egin zen. "Gauzak arrazoi ezberdinengatik ez ziren ongi atera, baina argi utzi nahiko nuke oroitzen oso politikak titulada, nahiz eta jende askok halakorik ez sinetsi". Zumaian bizi da duela bi hilabete, adinekoak zaintzen. "Askok bizi duten egoera ez da samurra, familiek utzikieriaz tratatzen dituzte. Oso tristea da". Euskaraz hitz egiten duenean duten erreakzioaren berri galdetzean, irribarrea datorkio aurpegira: "Hasieran harritu egiten dira. Baina gero gauzak zuzen esaten erakusten didate, hitz berriak esaten... Uste dut gustuko dutela. Hartu-eman bereziagoa egiten du honek, positiboa da. Kanpotik etorri eta egiten duzun ahaleginaz konturatzen direla uste du". Ana Marirentzat garrantzitsua da bertakotzen saiatzea, "kanpotik zatozena zeu zara, egin dezakezun gauzarik oinarizkoena. Niretzat, nire lana dela eta, garrantzitsua da euskaraz hitz egitea. Adinekoengana gehiago hurbiltzeko aukera ematen dit, nire ilobei lagundu ahal izango diedala ahaztu gabe".

Euskara ikasi eta integratu. Taldeko partaide gehienek modu batera edo bestera duten helburua. Guztiak ere bat datoz beste alderdi baten: ikastaroa luzeagoa izatea gustatuko litzaieke. Abesti zaharrak gogoratzen duen moduan, euskara da norbait euskaldun egiten duena. Hori sinesten dute Aisako ikasleek. Eta



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



Kantauni Plaza 6, behea tel. 943 117 406



L  
I  
B  
R  
O  
S  
R  
U  
D  
E  
N  
D  
A

Aita-Mari auzategia, 17  
Tel. 943 861569

jexux iruretagoiena lafunte.

(1)

## “ Baxakarte ”

ABELIN LINAZISORO

Elkarrizketa hauek egiten hasterakoan gure asmoa Zumaiako herri xehearen historia zatia, gerra aurretik gerra ondorenera, argitara ematea izan zen, beren protagonisten ikuspegitik erakutsita. Hitz batean esanda, hain ezkutuaren geratu zaigun gure memoria historikoa berreskuratzea, ohiturak, gertakariak eta abar azaleratuz. Orain arte ez dugu baserrietara jo eta Jexux Baxakarerenengan jo badugu, gerra ondorengo baserriko lanak eta ohiturak, eta, gerra aurrekoak berdintsuak izango zirelakoan gaudelako da eta bestetik Jexux oso hitzuna delako. Hurrengoan beste baserri batengana ere joko dugu kultura mota honekin amaitzeko eta ea arrantzan eskarmentu handia duen Zumai zaharra ondo ezagututako besteren batekin elkarrizketa egiteko aukera izaten dugun. Elkarrizketatua izan behar duenaren baietza lortzea ez baita kontu erraza. Ez dugu uste Jexux Baxakareren aurkezpena egin beharrean gaudenik, bertsolari moduan oso ezaguna delako eta baita abertzale bezala ere.



**Zein urtetan jaioa haiz eta hik lauz-pabost urte hitueneko baserriko kontuak gogoan al dituk?**

1.940-an jaioa nauk eta baserriko kontuak bai, ondo gogoratzen nauk. Behin bost bat urte ezkeo ittula jun behar izaten nian. Ittula deitzen zaiok ganauaren aurrian ibiltzeai. Ganaua ez dek ibiltzen souan hik nahi deken tokitikan, batzuk, idiak-eta, ikasten die denborarekin atzeko erremintak eindako arrastoan ibiltzen, baino behi gaztiak ez ditek jakiten. Ordun, mutil koxkorra baere jarri behar izaten dek animaliak bere lekutik juteko. Atzetik juten danak, goldia dala edo area dala, ondo eutsi behar izaten zaiok, beti zaitu ein behar. Gu, mutil-koxkorrak, lau-bost urteako hasi behar izaten giñien. Gogoratzen nauk nire lehengusu zaharrenakin goldian nabilela, hark kutxilo txiki bat zula, kerten txuri politakin, eta lanean aspertzen nintzanian, nik etxera ez aldegitetikan, kutxilua ematen ziala, eta gauero lo neola kendu, hurrengo goizian berriro eskeintzeko.

**OSTOLAZA**  
BURDINDEGIA

Jose M<sup>o</sup> Korta Industrigunea  
A1 - 4. Pabilioia  
tel.: 943 86 50 68  
fax: 943 86 13 45  
e-mail: denda@ostolaza.com  
www.ostolaza.com

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAI  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3<sup>a</sup> 20.800 ZARAUZ  
(GIPUZKOA)  
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu  
... mantenimendua  
Nekazaritza zerbitzuak  
Kirol zelaien mantenimendua  
Txostenak ...  
analkularitza teknikoak.  
Balorazioak

**TXINGURRI**  
Koof. Elk.  
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ALTZARIAK  
**OSTOLAZA**  
ARROZTEGIA

Mota guztietako  
altzariak eta  
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325

**Bien bitartean zer egite huan kutxilo-arekin?**

Patrikan sartu gordetzeko. Pikardiarik ez nian ezkutatzeko eta lo neola kentzen zian. Hurrengo egunian, gaur kutxilua eman eta ez diat kenduko, esaten zian, eta hola.

**Ganadua zaintzen-eta ibiltzen al zintzen?**

Bai. Guk behin zazpi urtekin, ilundu eta gero ere, ganaua zaitzen ibiltzen giñun. Ganaua larrera bota eta iluntzean ganaua bittu. Baserrian berandu arte eiten dek lan. Ni mutil koxkorretan ganauakin eta txakurrakin jun eta pinuipurdian lo hartzen nian askotan eta etxetik diarra eiten zien: Jexuux! Jexux lo zio. Nik ez da kasurik ere. Beaiak ez hittuan bildurtzen eta ni, txakurra aldamenian, lo.

**Lauzpabost urterekin zenbat ordu lan egiten huen?**

Goizian goizo jaiki, goizak ez zian barkatzen, erdi lotan jaiki eta goiz osoa lanian, ittulan. Gero bahittuan erreminta batzuk gainian jarrita ibiltzekoak zianak eta haien gainian gustoa ibiltzen hintzen. Aurrian oinez baino askoz hobea. Alperra eta holakoak hittuan eta gainian jarrita primeran.

*“Mutil koxkorretan ganauakin eta txakurrakin jun eta pinuipurdian lo hartzen nian askotan eta etxetik diarra eiten zien: jexuux! Jexux lo zio. Nik ez da kasurik ere.”*



**Goiz osoa lanean eman eta gero, arratsaldean zer egiten huen gogoratzen al haiz?**

Ez. Lau-bost urtekin ez nauk gogoratzen oso umea niñun-eta. Gero, bai. Zortzi hamar urte ezkeo bai. Orduan, zea, egunian 16 ordu igual. Gogoratzen nauk hamar urte nittula Garate baseerrian jardun gendula. Baserri hartan ordurako mutlizaharra eta neska zaharra bakarrik zeudean, bi edo hiru behi zien eta ez zien laborantzik eta ezer eiten eta eundoko terrenoak xixkien haiek, lur sail haundiak. Haiek deitu eta garia erdi bana ein ginien. Guk lurra landu eta gero ateratako etekinak erdi bana. Haiek ez zien indarrik lan horretako eta guk, bi edo hiru pare behiekin jun, lurra erabili, gozatu eta hazia bota ginien. Goizian Baxakartetik oinez tapa-tapa juten giñun, lana ein, ganauak han uzten giñuzen jaten emanda, gu lotara etxera itzuli eta hurrengo goizian, ilunpean oaindik, juten giñuan behetik gora. Beharko. Azaroa huan eta eguna motza. Han juten giñuan lanea, goizian goiz hasi eta iluntze arte. Han ez zean barkamenikan eta askotan gosaltzeako, puf!, hamarrak aldia

**Antonio Etxabe**



*Gizonezkoen erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



•Portatiliak eta ordenagailuak  
•Laguntza teknikoa  
•Tresna digitalak

Eusebio Gurrutxaga, 6  
tel. 943143395  
ertx@laci.net.es

*Gure txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

edo gehiago izate huan, zeozer, boka-diloa-edo jateako.

### Lurralde zabala, orduan.

Bai. Egun mordua pasatu gendun guk han garia botatzen. Igual doze-na bat egun-edo pasatuko giñuzen garia botatzen. Goiz ta arratsalde. Han ez zeon siestik, deskantsurik eta ezer. Bazkaldu ere, han bertan beheko sua bakarrik zien, laratzeko sua, eta etxetik eamaten giñuan zeozer preparatuta. Han bitxikeri bat bazeukat nik. Baserri hartan ez zeoan argirik eta argia karburuarekin eiten zien. Karburua pota bat edo bi behar izaten huan. Hala ba, gu lanian jardunda gero, ganauak ikuilura eaman eta gure osabak-eta ganauari jaten eman eta ikuiluko gorabeherak ein bitartian, ni oaindik mutil-koxkorra, sukaldian geatu niñuan erdi ilunpetan beheko suen argitasunakin bakarrik. Bertako neskazaharrak merienda edo zeozer preparatzen zian egunero. Egun hartan sardin-zaharra huan. Neskazahar hark gutxi ikusten zian. Hark sardin-zaharra erre eta ondoko mahaian jartzen zian. Eta hark platerian jarri ahala nik jan eiten nian. Izan ere, gosia!, ittotzeko gosia izaten nian. Eguerdiko jateko xaharrakin egon hadi tente ilundu arte, hi! Beatzi edo hamar sardin-zahar jan nitian eta han ez zeon gehio. Besteak etorri zianian, non dira sardin-zaharrak? Zean eongo hittuan! Ez nian harrezkeo



*“Hark sardin-zaharra  
platerian jarri ahala  
nik jan eiten nian.  
Izan ere, gosia!,  
Ittotzeko gosia izaten  
nian. Eguerdiko jateko  
xaharrakin egon hadi  
tente ilundu arte, hi!”*

sardin-zaharrik jan, ezta! Hogei urtekin ere ez nian jaten.

### Zein izaten zenuten meriendatzeko ordua?

Ez zekiat, ba. Auskalo. Berandu. Azaroa huan, baino ilunduta ere garia nahasten jardutzen gendun, e? Lehenengo lurra goldatu eiten dek, gero berdintzeko area pasa, segun zer lur dan, bitan edo hirutan pasa behar izaten dek area. Gero gari hazia, galazia, bota behar dek eta ordun lur gaina arearekin berriz nahastu galazia barruan geratzeko, bestela txoriak-eta jaten dittek. Kriston lur saila ein behar izaten huan, hazia egunargiz botatzen huan, noski, baina nahastu, ondo nahastu ein behar izaten huan eta ilunduta ere hantxe tirri-tarraka arearekin lanian bueltaka. Hura lan nekosua huan, motel! Oaingo lanakin ez zeok konparatzerikan. Jefu!

### Lana haurtzarotik ezagutu baduk, eskola kontuak-eta nola joan zitzaizkian?

Eskola kontuak? Eskolara gutxi junaz. Sanmiela juten giñun, neska eta mutil. **Elkarrekin nahastuta?** Nahastuta ez, bi lerrotan jartzen giñuan mahaietan, alde batera neskak eta bestera mutilak, baina gela berean.

### Irakasle maixua al zenuten?

Ez, maistra. Oriotarra. Anita Arruabarena.

# EGOKI



*Erloju  
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

**BEDUA  
ITURGINTZA S.L.**  
ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA  
-ZORU BERO-EMALEA  
-GAS INSTALAZIOA  
-GAS NATURALA  
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
Tel. 943 14 33 69



### Zer moduzko emakumea zen?

Oso jatorra. Guri euskeraz egiteatik-eta ez zigun ezer esaten. Eskolan erderaz ein behar izate giñuan, irakurri eta eskola dana, baino normalean alkarrekin euskeraz eiten giñuan, erderaz ba al genekin, ba!, bai eskola barruan, hi ekartzak hori edo ba al daukak lapitza?, eta holakoak, baino ez zigun sekula ezer esaten, eta kanpoan jolasian zer esanik ez, euskeraz, jakina.

### Eta maistrak zuei nola hitz egiten zizuen?

Erderaz, obligazioa izaten zian, baino nirekin euskeraz, kanpoan behintzat.

Hura Oriora trenez juten huan eta nik hari askotan laguntzen niñuan. Seiretako trenian-edo juten huan eta hark kriston bildurra zian tren-zubiari, izan ere, Zumaian trenea haiziak bota zunian, itxuraz hura trenian sartu ala ez sartu ibili eta kriston eskapa ein omen zian.

Hola, ba, Artaditik Zumaira deposito

ondotik goitik behera jetxi eta tren-zubitik barruna estaziora. Eta tren-zubian, badakik, ohol zaharrak zeudean asko eta bat zapaldu eta gaixki, bestea zapaldu eta okerro, oholak libre antzean baitzeudean. Ordun, ba, hark Samielen halako haize pixkat nabaritzen bazun, eskolatik ertetzeakoan nei beti esaten zian: Gero atarian nere zai egon, e? Guk pelota pixkat ein behar izaten gendun etxera juteako, nahiz eta baserrian ni hara juteko presa izaten zuten, ittulako edo zeozer beti izate huan-eta, ordun, ba, eoteko esaten bazian, behera jetxi eta tren-zubia pasatu arte besotik helduta laguntzen nioan. Tren-zubia bukatzean, han uzten nian, ni bueltatzen niñun eta nik zubia pasa arte bea han eoten huan atzetik nei begira. Eta ez huan sekula abiatu nik zubi dana pasa

arte. Aio!, aio!, ein elkarrei eta ni tuneletik barruna Baxakartera.

### Zuek beti tuneletik ibiliko zineten, ezta?

Bai, bueno!, gu tuneletik ibiltze giñuan, zea, autopistan bezela. Trena etortzen bazan, brui, baztertu bazterrian eta bale. Eta gero, ba, lehen esandakoa, gutxitan juten giñun gu eskolara. Udaberrian-eta, lana zeon garaian, ganauakin-eta, ba, hori, eskolik pe. Egurko daon alde hortan lurra giñuan, eta ganaua, badakik, mantsoa dek, eta gurdika bat belar bila juteko ere, Santixotik bueltan jun behar izaten huan, gizon heldua zubitikan pasa eta mutil koxkorra ganauakin hara juteako gurdika belar ebakita eukitzen zin. Bueltakua berdin, gurdia kargatu eta mutikoak buelta haundia ein bitartean, bestea etxera jun eta lanak ein. Eta hola. Eta zenbat aldiz astelehen goizian itxian nei amak eskolako jarri eta, ez bialdu mutila eskolara gaur lana dao-eta. Eta maistra haserratu eiten huan. Nei zeatik ez diazue mutila eskolara bialtzen? Eta hau eta hori. Horreatikan, ba, guk ez giñun zigor handirik jaso, eta ezta asko ikasi ere.

### Hi, orduan, urte betean urte erdia-edo ibiliko hintzen, ezta?

Bai. Negu aldian gehienbat. Behin udaberria hasi ezkeo, lanera. Hala ere, hain gutxi junda ere, matematikan ondo moldatzen niñun. Gainuntzian, grama-

English School  
**Harvest**

Klaseak urrian hasi dira baina oraindik ez da berandu. Animatu zaitetz!

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 943 862051

**S**  
DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

amaiaiko plaza, 2  
Tel. 943 143278

**Maitte**  
ileapaindegia

tika eta holakoekin astirik ez ikasteko. Matematikan igual hamabost egun jun gabe eon eta gero hiru egun jarraian juten baldin banintzan besteak harrapatu eiten nixkian.

**Gramatika, historia de España eta holakoekin gaizki orduan.**

Gramatikakin gaixki, eta historia de España, ene ba!, hori mailuakin ere ezin sartu. Eskolan batzutan aurrena eoten niñun, eta historia de España jartzen zanian, nik ezta hitzik ere. Orduan maistrak, jata, azkeneko postura bialtzen niñun. Parbulitoeekin batera atzera. Ezin sartu historia de España! Bibliako kontuak, aldiz, historia sagrada deitzen zana, hori, jata, ra ra oso erraz ikasten nian. Ipuia bezela. Ein behar izaten gendun beste kontu bat, hori mixerikeria, eskolan aurrena zeonak bandera espainola kanpoan zintzilik jarri behar izaten zian. Nik behin ere ez nian jarri. Que no quieres! Al final!, maistrak. Eta ni azkena. Baina nei ez zian batere inportik izaten. Eta egia esan behar baldin badet, lehenengotikan ez zekiat zeatikan eiten nun ere. Etxean danak gerran ibilitakoan hittun eta gerra kontuak ixilikan jardutzen zien haiek. Ez zien mahaiian kontatzen. Baina guk igartzen giñun, zeozer sumatzen giñun. Guk han ez gendela uste bai, baino, badakik, umia beti nonbaitetik azaltzen dek Aitu ere bai. Erdizka edo auskalo. Kontua dek, ez

*“Ein behar izaten gendun beste kontu bat, hori mixerikeria, eskolan aurrena zeonak bandera espainola kanpoan zintzilik jarri behar izaten zian.”*

nula bandera espainolik jarriko. Bihurria ere baniñun, e? Eta hola. Gero, hamalau urtekin-edo kontu gehio jakin nitian.

**Konta ezak.**

Bueno, gure osaba bat huan gehiena kontatzen zuna. Jenio bizikoa huan. Julio, Imanolen-eta aitta. Hark jardutzen zian askotan eta besteak: Ixilik egon ai, Julio! Beti umien bistan ere! Hamalau urtekin ere umiak giñun haiantzako. Guk amama Errexilkoa

giñun eta haiek Samieletan konbidautan etortzen hittuan gurera eta gure aittitta ere hara juten huan hango festetan. Urte batian, aittitta, osaba Julio eta ni jun giñun hara. Haiek ziharo txapel gorri jendia izan behar zien eta bazkaltzen ai ginala haserratu hittuk eta ia-ia muturrekoka ein zien. Han geatu zian gure Errezilko konbidantzak. Nik dakitela inork ez dek harrezkero jun. Gehiena osaba horrekin jakin nitian gerra kontuak. Gure ama ere gerran ibili huan. Hemendik lau senide bialdu zitien kanpora. Bi senide zaharrenak aurrian zialako, beste lau senide Zumaitik kanpora, hi! Kanpora bialdutako zerrenda bat azaldu huan lehengoan Hitzan eta guriak zauztar bezela azaldu hittuan. Deitu nian Hitzari eta, hi hor azaldu dezuen laukote hori Zumaiarrak dittuk, ez dittuk zauztararak, e?

Kontua dek hemendik bialdu zituztela eta haiek gero Bizkaian nora jungo zian, ba! Frentera jun behar! Gure amak eerki eiten omen zian tiro, e?

**Harrigarria. Hemendik bidalitako denak babestuak egon baitziren.**

Ba, nei esan zian frentian izan ziala. Gure osaba gazteenak hamaika urte omen zitian eta kristonak jotzen omen xixkian jateko bila. Hura gosiak eta etxe inguruetan ogia edo zeozeren bila beti. Baina beharbada kontu hoiek gure ama frentera jun baino lehenokoak izango hittuk.

(jarraituko du)



**OPTIKA ZUMAIA**  
Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A



**AR** Ricardo J. Azcue Yeregui  
Abokata • Asegiaruzak  
Finka Administrazioa  
txomin aguirre 4, behea  
20.750 zumaia (guzuzkoa)  
E-mail: rjzcue@euskalnet.net  
Tel. 943 862651  
Fax. 943 862748

**FARMA ZUMAIA PARAFARMAZIA**  
653 01 96 81

**PRODUKTUAK**  
• Urte eta haurrentzat, Dietetikok, Kosmetikok, Bantia eta oskuen zainlaritza...

**ZERRITZU BEREZIAK**  
• Dietala, Neurologia, Infektio, Hach imen, Mitozitate (Terapeutikak, Nutrientzako, Lurrikalari, Imunenent, Antibiotikoen, Buzko iruten, Zirkulazio arazoan... kontakoa), Akupuntura onakelkin eta onakelkin gabe.

**BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA**



# Urrutikoa alboko zelaian

**Gaur egungo gizartean hain estereotipatua dagoen, eta, era berean, hain misteriotsua den eta hain gutxi ezagutzen dugun kirolaren inguruan hitz egin digu Imanol Urdanpiletak.**



IURE ALTZIBAR eta MAITANE AGIRRE

Martxan da jada golfa praktikatzeko zelaia. Karakasko zelaian dago eta golfean aritu nahi duten guztientzat dago irekita. Gainera, bertan maisu batzuk egongo dira joaten direnei arauak eta teknikak azaltzeko.

"Beti pentsatu izan da aberatsentzat dela, baina herriko jendeak beste edozeinek bezalaxe edo hobeto joka dezake. Horren adibide bat Zarautzen dago: hango gazte batzuk Espainiako txapeldunak dira". Horixe izan da Imanol Urdanpiletak, golf zelai berriaren bultzatzaileetako batek adierazi diguna.

"Pertsona zelaiaren aurka lehiatzen da. Eta edozein adinetako jendeak dauka jolastea"

Orain arte, golfean aritu ahal izateko leku bakarra eduki dugu hemen inguruan eta hori Zarauzko golf zelaia izan da. Bertan, ordea, ez dago praktikatetarako zelairik eta horrelako zerbaiten falta sumatzen zutela esan digu

Imanol Urdanpiletak. Horregatik, lursail egokiak aurkitzen aritu dira denbora batean eta Karakasko zelaia horretarako egokia delakoan, bertan jarri dute golfeko praktikearako gunea.

Berdina dirudien arren, desberdinak dira golfeko zelaia eta praktiketarako zelaia. Golfeko zelaian, pilotak zelaiko zulo-



Albaitaria  
Waki Gormendia

Basodi 7 behea - 20750 Zumaiá - Tel.: 943 143 310

Emaila: veterinario@basodivet.com  
Web orria: www.basodivet.com

Ordua: 11-13 / Arratsaldeak: 16-19:30 / Azkeneko gutunak eta larriak: 24 orduko zerbitzu.  
Lentak: 683 725 727 Euzko erakundearen bidez

## SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza

- Merkantiak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

*fidatzeko baimen guztiak*



tan sartu behar dira. Praktikatzeke zelaietan, berriz, ez dago zulorik. Makina batean dirua sartu ondoren, pilotak ematen dituzte eta pilota horiekin eta beraiek utzitako makilekin teknika lantzen da. Golfean jokatzeko ikasten da, azken finean.

Praktikarako zelai honen bidez, eskoletatik joaten diren haurrei lehen urratsak egiten lagundu nahi diete. "Horrela, golfa ezagutu eta zer den jakin dezaten. Izan ere, jendearen artean nahiko estereotipatua dagoen kirola da." Horrez gain, Nazaret zentroarekin harremanetan jarri dira golfeko eskolak emateko. Zentro horrek obra sozialak egiten ditu eta, besteak beste, helduentzat ekintzak prestatzen ditu.

Kirol honetan lehia ez da pertsonen artekoa izaten. "Pertsona zelaiaren aurka lehiatzen da". Zelaiak hainbat kolpe ditu ezarrita eta kolpe horien bidez pilota zuloan sartu behar da. Zelaiak, ordea, abantaila bat ematen du norberaren trebetasunaren arabera eta horri handicap deitzen zaio. Handicapa 1etik 36ra doa; hasiberriek 36ko handicap dute eta emakumeek gehiago. Handicapa zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta hobea zarela esan nahi du, hau da, pilota kolpe gutxiagorekin sartzen duzula zuloan. "Horri esker, edozein adinetako jendeak jolastea dauka. Beste kiroltan norberaren mailakoen aurka jokatu behar den bezala, hemen ez da hala gertatzen".

Golfean, jokoa amaitu ondoren, norberak bere jokaldiak eta bestearenak apuntatu behar ditu eta amaieran bata bestearen fitxa sinatu behar du. Aurkariak ikusten badu egindako zerbait ez duela apuntatu, esan egin behar dio eta fitxa ez sinatzeko eskubidea du. "Tranpak egiten dituztenak elkarren aurka jokatzeko ari badira ez da ezer gertatzen, baina txapelketan ezin da horrelakorik egin, bestela ez baitio inork sinatuko txartela. Txartelak balio du hobetzen baldin bazoaz, handicap jaisteko".

Imanolek adierazi digunez, kirol honetan jokoak leialtasunez betetakoa izan behar du eta oso garrantzitsua da arerioarekiko errespetua izatea. "Hainbat lege daude eta horien artean, ezin da hitz egin arerioak pilota jo behar duen momentuan, ezin da bere atzean egon... Azken finean, jokoak garbia eta errespetuzkoa izan behar du. Gauza



horiek gaztetatik erakutsiz gero, kirolari onak izango dira. Agian ez dira munduko txapeldunak izango, baina bai errespetuzko pertsonak. Horrek beraien heziketan eragina izango du eta beste balio batzuk hartuko dituzte."

"Kirol honetan ezinbestekoa da zelairatu aurretik arauen liburua irakurrita edukitzea". Gaur egun, ordea, zelairatzen diren gehienek ez omen dute irakurrita. Zelaietan lehiatzen hasi baino lehen, jokalaria federatu egin behar du eta ondoren eskolak hartu behar ditu. Horrela, maisuak erabakiko du jokalaria zelairatzeko moduan dagoen ala ez. Prest dagoenean, Euskal Federaziora deitzen da eta arauen zuzendaria etortzen da jokalaria galdera batzuk egitera. Ordurako, beraz, ezinbestekoa da arauen liburua irakurrita edukitzea. Horren guztiaren ondoren eta arauen zuzendariak oniritzia ematen badu, jokalaria zelaira ateratzeko moduan egongo da. Beraz, "guzti horren aurretik prestatzeko, aukera ona da praktiketarako zelaia".

Martxan hasiak direla aipatu digu Imanolek. Hala ere, oraindik prezioak eta ordutegiak zehaztu gabe dituzte (15 egun barru argitaratuko dituzte). Horren berri izan nahi duenak Zumaiako turismo bulegora jo dezake.

dekorazioa  
**ALBERDI**

696 726188  
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

**GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA  
**ARGIDENDA**

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide 5. pabiloia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23  
Tel. mugikorra: 608 143409

## ZINE FORUM

Azaroaren 16an, gaueko 10:15ean

**Contra la pared**

Zuzendaria: Fatih Akin

Aktoreak: Birol Ünel, Sibel Kekilli, Catrin Striebeck



Gizonezko eta emakumezkoa euren buruaz beste egiten ahalegindu ondoren, suspertze ospitale batean ezagutu eta aurreranzko ibilbidea elkarrekin egitea erabakiko dute. Euren arazoak gainditu ezinik bizi diren bikote honen istorioa kontatuko digu filmak eta amour fou deritzana izango da, hain zuzen, biziko dutena, hau da, arazoak eta egoerak azken muturreraino eramaten dituztenak.

Pelikula Hanburgoko turkiar komunitatean dago kokatuta eta Fatih Akin zuzendariak ondo baino hobeto asmatu du azaltzen zer desberdintasun dagoen Hanburgoko turkiar komunitatea eta Turkia bertako kulturaren artean. Filma gogorra da, baina samurtasunean ere asmatzen du eta batez ere bere iraganak baldintzatuta bizi den emakume baten istorioa da, etorkizun zalantzatirantz doan emakumezkoaren independentzia nahiaren bilakabidea kontatuko digu, hain zuzen. Azpimarragarria Istanbul atzean dutela aldiaren behin azaltzen den musika talde baten ererkiak eta, batez ere, Sibel Kekilli emakumezko aktorearen lan egiatia, pasioz betea, askatua eta aurreiritzirik gabea. Izugarri ona.

Azaroaren 30an, gaueko 10:15ean

**Cruzando el puente.  
Los sonidos de Estambul**

Zuzendaria: Fatih Akin

Aktoreak: Alexander Hacke, Duman, Erkin Koray

Istanbulen Contra la pared pelikularako soinu banda konposatzen ari zela, azken 20 urte hauetan Einstürzende Neubauten abangoardiako musika taldeko kide den Alexander Hacke-k hiria eta bertako musika ezagutu zituen. Baba Zula izeneko talde psikodelikoko kideekin harremanetan jarri zen eta taldeko baxu jolea ordezkatzeko proposamena jaso zuen. Soinuarekin esperimintatzea maite duen gizona konbentzitzea ez zuten zaila izan. Baina baxuaz gain, grabaketarako estudio mugikorra eta bere "mikrofono magikoa" ere eraman zituen. Aparatu horiekin mundu osoko soinu exotikoak grabatu ditu Hackek, "kaleko grabazioa" deitzen dion metodoa erabiliaz.

Mendebaldean Turkiako musika ezagu-tzera emateko asmoarekin, Istanbulen musikak jasotzea zen bere helburua. Doinu elektroniko modernoak, rock eta hip-hop taldeak eta arabiar musika klasikoak grabatu zituen, besteak beste. Grabazio prozesu luze honetan Contra la pared pelikulako zuzendaria Fatih Akin eta bere kamera izan zituen bidaia-lagun. Alexander Hackeren basea Beyoglu auzoan, Turkiako paraje europarenean kokatzen den Büyük Londra Oteli (Londresko Hotel Handia) beneragarria izan zen. Hortik abiatuta, bizitzaz betetako mundu ezezagun, erakargarri eta kontraesankor batean murgildu ziren. Mila aurpegi dituen hiri erraldoi honetako korranteak bultzatuta, Istanbulen bizilagun eta musikarien iritziak eta grabazioak bildu zituen.

**Zerbitzu Ofiziala****ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

**Mota guztietako altzariak**

Xanti Osa

Amaia plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385



Asia eta Europa banatzen dituen Bosforoko itsasartea zeharkatzen duen zubiak bezala, bi mundu elkartzeko asmoa du pelikulak, horretarako musika anitza erabili-az. Cruzando el puente ez da, ordea, Istanbulgo musika giroaren kontakizuna egitera mugatzen, turkiar gizarteak pairatzen duen egoeraz (kurduen zapalkuntza eta eskuineko alderdien jarrera totalitarioa barne) ere hitz egiten baita dokumental bitalista honetan.

Arazo bakarra egon daiteke; izan ere, soinu banda eta pelikula onak izanda ere, eta oso onak dira, ez dute hiri magiko honen sortzen dituen irudiak eta musikak behar bezala islatuko.

Abenduak 14an, gaueko 10:15ean

## Sud express

**Zuzendaria:** Chema de la Peña eta Gabriel Velázquez

**Aktoreak:** Gerald Morales, Tino Guimaraes



Chema de la Peña zuzendari bitxia da espainiar zinegin-tzan. Pelikula komer-tzialak egiten dituenen (Shacky Carmine, Isi/Disi) emaitzak kaxkarrak izaten dira. Zine pertsonalagoa egiten duenean, ordea, bere benetako maila ematen du. Azken talde honetan kokatzen dira 2002ko De Salamanca a ninguna parte dokumentala eta iazko Zinemaldian aurkeztu zen Sud-Express hau.

Bizitzen bidegurutzea da Sud-Express. Sei pertsona arruntaren bizitzak Paristik Lisboarako bidea egiten duen trenean gurutzatuko dira. Protagonisten bitartez, Europak pairatzen duen une kritikoa kontatzen da, pertsonaia beraien parekotasunak eta desberdintasunak aztertuz.

Pertsonaien solasaldiek eta isiltasunek sinesgarritasuna dute eta horretan zer ikusi handia du aurpegi ezezagunek osatutako aktore taldeak. Eskertzekoa da, baita ere, bide luze horretan entzun daitezkeen edo pertsonaiek hitz egiten dituzten hizkuntzak (frantsesa, espainiera, portugesa, arabiera, baita euskara ere) errespetatu izana. Oraindik egiazkoagoa bihurtzen du filma.

Bizitzaz betetako pelikula errodatu du De la Peña-Velázquez bikoteak; bizitzaz betea, izan ere, zuzendarientzat "Trena beti izan da hori: mugitzen diren emozioak".

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

*Juaristi*  
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

# agenda

## IKASTAROA

INFORMAZIOA: Foronda Kultur etxean 943-861056

YOGA:

Astearte eta ostegunetan 18:30ean kultur etxean.

PINTURA TAILERRA:

Astelehenerdik ostegunera. Urriaren 2tik aurrera.

BI ARRI:

Eskulanak, Tiffany, Patchwork eta Josteko lan txikiak.

Urritik ekainera. Egunero, goiz eta arratsalde, Alondegian.

Informazioa eta izen ematea: 646 85 42 90 / 660 98 32 89

HAUR PLASTIKA TAILERRA

Urriaren 8tik ekainera. Astelehen edo Asteartean, 17:30etik 19:00etara. Matrikula: 100 euro.

TAI CHI:

Osatzeko taldea (beste ikastaroetan ibili direnentzat), ostegunetan 18:00etan. Matrikula: 25 euro.

KUTXA GELAK/AULAS KUTXA: Tai Chi, eskulanak, photoshop.

Informazioa eta izen ematea: www.kutxasocial.net edo 902540040 tel.zkian.

## DEIALDIAK

- Maketa dirulaguntzak: herriko talde gazteentzat. Eskerak aurkezteko epea: azaroaren 24a.

## IRTEERAK

Informazioa: 943-143396

Txangoak:

-Azaroak 18: La Arboleda-Trapaga

Bisita gidatuak:

-Geologikoa: azaroak 19 eta 25

## ERAKUSKETAK

Azaroaren 15etik 30era, "Ez zara inoren panpina"

## XEXILI ASTEA

Azaroaren 20tik 25era

Astelehena, 20

18:30ean Aita Mari aretoan

Eskusoinu Kontzertua

Amaia Zubimendi, Maria Zubimendi, Jon Iturralde eta Naiara de la Puente

astearte, 21, eta osteguna, 23,

18:30ean, Musika eskolan,

entzunaldiak

Asteazkena, 22

XEXILI EGUNA

12:30ean, Behoko Plaza

abesbatzaren kalejira

19:00etan, Kalejira. Txori Txiki

Musika Eskola eta Udai Musika

Bandako kideen atzetik.

Ostirala, 24

18:30ean, Maria eta Jose

aretoan. Kontzertua Txori Txiki

Musika Eskolako ikasle eta

irakasleen eskutik.

Larunbata, 25

19:00etan, Maria eta Jose

aretoan. Udai Musika Bandaren

Kontzertua. Gonbidatua, Txori

Txiki Musika Eskola.

20:00etan, Erribera kalean, San

Pedro Abesbatzaren ekitaldia.

## AZAROA

Osteguna, 9

19:00etan, Alkoholiko Anonimoak

taldeak antolatutako hitzaldia

Gizarte Zentroan.

Osteguna, 16

22:15ean, zine forum saioa: "Contra

la pared".

## Kultur errota

Urolako Kultur Zirkuitua antolatuta dute eskualdean. Zumaian, BALEIKEK eta Txinpartak bi emanaldi antolatuta dituzte. Bigarrena azaroaren 24an.



Ostirala, 17

22:00etan, Aita Marin, antzerkia

TXALO taldearen "ARTE"

Igandea, 19

12:00etan, haur antzerkia "Pizti

domatzailea"

Asteazkena, 22

St. Zeziliako kalejira, iluntzean.

Osteguna, 23

17:30ean, haur liburuetan, ipuin

kontaketa, Pello Añorgaren

eskutik.

Ostirala, 24

Baleike eta Txinparta elkartearen

esku, Literatur emanaldiak: BERTOL ARRIETA, "Txikira beti hordago".

Larunbata, 25

Iluntzean, Maria eta Jose aretoan,

Udai Musika Bandaren Santa

Zeziliako kontzertua

22:00etan, Alondegian, antzerkia:

"Los Caminos de Juana" - "Los

cuatro vientos" teatroa

Osteguna, 30

22:15ean, zine forum saioa:

"Cruzando el puente: los sonidos

de Estambul".

# ZALLA

## Taberna - Erretegia

\* plater konbinatuak  
\* otartekoak  
\* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

# Nikol Enea

## TABERNA

Amaiako plaza



## AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

# ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

## ile-apaindegia



## Solarium

ETXEZARRETA, 9

TEL: 943 86 10 21

## Zumaia Hotela

Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64

# LEIZE

taberna

Juan Belmonte, 6

## ileapaindegia

# I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083



RPS: 066/02

# "Muagi"

**Medikuntza eta errehabilitazioa**

**FISIOTERAPIA**

Maider Olazabal

**KIROL MEDIKUNTZA**

Manu Glez. Aramendi

**KIRURGIA OROKORRA  
LISERI-APARATOA**

Juan Ignacio Alberdi

**PODOLOGIA**

Ione Aguirregomezkorta

Alta Mari poligonoa, 3, blokea  
Tel. 943 86 16 91  
Zumaiá

# ERROTA



# OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

**LABEA:**

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60